




Save the Children

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

6 urtetik 8ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa



Laguntzen dute:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena
6 urtetik 8ra bitarteko neska-mutilentzat
egokitutako bertsioa**

Haurtzaroaren Eskubideen Defentsa eta
Sustapenerako programa

Lehenengo edizioa: 2009ko abuztua

Bigarren edizioa: 2010eko abuztua

Edizioa: Save the Children

Koordinazioa: Silvia Hernández

Koordinazioa Euskadin: Nahia Pérez de San Román

Testuaren moldakuntza: Silvia Hernández eta Mercé Allés

Diseinua: Mercé Allés

Zuzenketa: Pepa Horno

Euskarazko itzulpena: Aztiri

Inprimaketa: San Martín Impresión Digital

DL:VI-235/2011

Iturriak:

-Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena,

Save the Children, 2009

- Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenari

egokitutako bertsioak "Nire eskubideak",

Save the Children, 1999

- www.elmundodenedina.org

- Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena,

gazteentzako egokitutako bertsioa. Unicef 2005

Save the Children Euskadin

Manuel Iradier kalea 22, Bulego 1

01005 Vitoria-Gasteiz

Tel: 945 134368

euskadi@savethechildren.es

www.savethechildren.es


**HAURREN
ESKUBIDEEI
BURUZKO HITZARMENA**

6 urtetik 8ra bitarteko neska-mutilentzat egokitutako bertsioa

Kaixol! Zure eskubideei buruzko liburutxo bat aurkeztu nahi dizugu... Ba al dakizu zer diren eskubideak?

Eskubideak oso gauza garrantzitsua dira, eta ezin dizkizu inork kendu. Jaiotzen garen unetik ditugu guztiok, eta zuk ere bai, noski!

Baina, eskubideak soilik ez, betebeharrak ere baditugu: pertsona guztiok ongi bizi gaitzen egin behar ditugun zereginak dira betebeharrak.



KAIXO!



KAIXO!




KAIXO!

Eskubide horiek ezagutzeko eta eskolan, etxean, nahi duzun tokian, beroriez hitz egiteko aukera eman nahi dizugu, bai zuk eta bai gainerako guztiek, heldu nahiz haurrek, errespetu eta praktika ditzazuen.




Haur guztiok, 0 urtetik 18ra bitartean, babesten gaituen nazioarteko lege bat dugu: Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Haur guztiok eskubide berberak ditugu. Horrek esan nahi du gobernuek, familiek eta inguruan ditugun pertsona guztiak gu babesteko eta ongi tratatzeko betebeharra dutela.

Abarraztu hemen zure lagunak



**Haur guztiak dira garrantzitsuak!
Horregatik, gobernuek eta pertsona guztiak
beharrezkoa den guztia egin behar dute gure
bizitza hobea izan
dadin eta gu ondo egon gaitezen.**

**Marraztu zeure
burua!**




**Nik
ere bai!**

Eta nik!



Haur guztiok dugu izena, eta hori ere eskubide bat da!

Nire izena
Guim da.




Ni Nerea naiz
Zeta zu?



Idatzi zure izena:

Beldurrik gabe, maite ditugun eta maite gaituzten pertsonekin ondo bizitzeko eskubidea dugu; eta guk maite ditugun pertsonak errespetatu eta zaindu egin behar ditugu.



Gure eskubidea da pertsona guztiek guri tratatu
ona ematea eta inork minik ez ematea.
Eta guk beste haurrak eta pertsona guztiak
ondo tratatu behar ditugu, beraiek ere eskubide
bera dutelako.



Gaixo gaudenean laguntza jasotzeko,
osasun etxera joateko eta sendatzeko laguntza
jasotzeko eskubidea dugu. Eta guk gure gorputza
zaindu behar dugu eta janari osasungarriak
jan behar ditugu.




Eskolara joateko eta gauza asko ikasteko eskubidea dugu.




Gainera, gure irakasle eta hezitzaileek proposatzen dizkiguten lanak egin behar ditugu.

Lozez betetako eta zaborrik gabeko baso eta zelaietan zehar ibiltzeko eskubidea dugu. Eta itsaso eta ibai garbietan bainatzeko, aire garbia arnasteko eta ur garbia edateko eskubidea dugu.




Natura, landareak eta animaliak errespetatzeko betebeharra dugu.

Pentsatzen duguna esateko eskubidea dugu,
eta besteek, haur eta helduek, entzun egin behar
gaituzte. Beste batek gustuko ez dugun zerbait
esaten badu, errespetatu egin behar dugu,
haren iritzia delako.



Zer hitz ora ditzakezu
letra hauekin?

**Atsedeen hartzeko, jolasteko,
beste haurrekin egoteko,
barre egiteko eta mendi inguruez eta
hiriez gozatzeko eskubidea dugu.**




Gure hizkuntza erabiltzeko eta gure festetan eta tradizioetan parte hartzeko eskubidea dugu, eta gure gurasoek irakatsi egin behar dizkigute. Bestalde, besteen hizkuntzak eta ohiturak errespetatzeko betebeharra dugu.

Zer hizkuntza ote
darabilte!



Привет!
Kak zera!



早上好!
阙数字!



Gauza bat ondo egiten ez dugunean, guraso,
irakasle eta hezitzaileek esan egin behar
digute, eta gauza horiek hobeto egiten
irakatsi behar digute, gure eskubidea da.

Arreta
handiagoa izan
behar duzue!

Eskolak amaitutakoan
joango al gara parkera?



Zure eskubideez norbaitekin hitz egin nahi baduzu, gehiago jakin nahi baduzu edo zure eskubideren bat ez dela errespetatzen uste baduzu, jarri harremanetan arartekoarekin:



“HAURREI ETA NERABEEI LAGUNTZEKO TELEFONOA”

116111

ARGIBIDEAK

010

SAVE THE CHILDREN

Tel.: 945 134368

euskadi@savethechildren.es

www.savethechildren.es

Manuel Iradier, 22, solairuartea, I. bulegoa
01005 Vitoria-Gasteiz

